



# Hitzaurre gisa

**Belen Uranga**

*Soziolinguistika Klusterra*

b.uranga@sozolinguitika.eus

Bat Soziolinguistika Aldizkariak intereseko ikusi du aurten ere *Lurraldea eta hizkuntza* biltzen dituen gaiari leku eta zenbaki monografikoa eskaintzea. Iaz bezala aurten ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMak, Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluak eta Udako Euskal Unibertsitateak elkarlanean antolatutako *Lurraldea eta Hizkuntza. Erronkak & Tresnak*, II Jardunaldiak. Jardunaldiok 2015eko otsailaren 5ean eta 6an burutu ziren Donostiako Karlos Santamaria aretoan. Bertan azaldutako ekarpenen interesa ikusirik, aldizkariak bere gain hartu du han aurkezturiko gaiak argitara ematea.

Jardunaldietan lurralde-antolakuntzaren eta hizkuntza-dinamiken arteko harremanez iaz hasitako hausnarketari jarraipena eman zitzaion. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak eginitako hainbat ekimen zehatzen inguruan aurkezpena eta eztabaidak ere sustatu ziren. Zehazki, garrantzi berezia hartu zuen **lurralde-antolakuntzan hizkuntza-irizpideak** txertatzeko **tresna** aurkezteak eta eztabaidatzeak.

Hizkuntzak bere lurraldea behar duenez gero, hizkuntza-ekologiak hizkuntzaren, hiztunaren eta hiztun komunitatearen arteko harremana aztertzen du, jakina, hori guztia lurralde zehatz horri lotuta. Ikuspegi horretatik abiatuta izan zuen bere lekua jardunaldiotan **Itsaso Olaizola** Ekoguneko teknikariak, eta zenbaki honetara bildu dugu bere aurkezpena biltzen

duen artikulua. “Hizkuntza-ekologia paradigma: ekologiaren begirada hizkuntzen babesarako” izenburupean, ekologiak hizkuntzei zer-nolako begirada ematen dien azaltzen da maila teorikoan, eta gurerara ekarriz, Euskal Herriko hizkuntza-aniztasunaren diagnosi ekologikorako proposamena egiten. Aldi berean, ekologia zientziaren eta jasangarritasunaren printzipioak modu praktikoan nola aplikatu daitezkeenaren inguruko proposamenak ere planteatzen dira hizkuntza-plangintza iraunkor bat helburu.

Aldizkariaren bigarren artikuluan euskarazko udal jarduerak duten marko legalaren inguruko hausnarketa proposatzen du **Iñigo Urrutiak** “Euskarazko udal jarduerak ba al dute lege babes eraginkorrik? Normalizazio eredu berri baten bila” artikulua bitartez. Bertan, udalerrri euskaldunetan euskaraz lan egiterakoan dauden beharren aurrean Udal Legearen proiektuak erantzun egokiak eskaintzen ote dituen aztertzen da. Horretarako, hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren hedapena aztertzen da, Konstituzio Auzitegiak 2010. urteaz geroztik abiarazi duen jurisprudentzia, eta Udal Lege proiektuak aurreikusi dituen ezarpenak.

Marko juridikoaren azterketaren ondotik oso interesgarria iruditu zaigu **Iñaki Iurrebasok** Soziolinguistika Klusterrarekin batera egindako lana aurkeztea. Izan ere, ikerlariak EAEko uda-

lerrietan azken 30 urteotan gertatu den euskaldun-kopuruen bilakaera aztertu du, ikerketa sakon bezain interesgarri batean. Ikerketaren laburpen bat ekarri dugu aldizkarira, nahiz eta lan osoa Soziolinguistika Klusterraren webgunean eskuragarri dagoen. “Udalerrri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnasmuneak arriskuan. EAE, 1981-2011” izenburupean, azterketaren emaitzak erakusten du besteak beste, bilakaera soziolinguistikoa ez dela homogenea izan lurralde osoan. Asko laburbilduz, esan daiteke zonalde erdaldunenak euskalduntzen ari direla eta ingurune euskaldunenak erdalduntzen. Jakina, bi gertakari horiek ezaugarri desberdinak dituzte eta baikoitzaren nolakotasunak eta arreta berezia non jarri beharko litzatekeenaren inguruan hainbat proposamen ere egin ditu egileak.

Laugarren artikuluak **Imanol Esnaolak** eginiko ikerketa baten berri ematen du. Kasu horretan, espresuki aztertu da udalerrri euskaldunen bilakaera sozioekonomikoa, ezagutza soziolinguistikoak kontuan hartu behar baititu ezaugarri horiek, hizkuntzaren nondik norakoak ulertu eta aurreikusteko. Ikerketaren arabera, udalerrri euskaldunetan etxebizitza berri kopuru handiak eraiki dira, nahiz eta bertako biztanleek lehen baino proportzio txikiagoan lan egiten dute herrian bertan. Gainera, gero eta gazte proportzio txikiagoa geratzen da herrian bertan, eta, aldiz, inguruko herrietatik jende heldu ugari bertaratu da. Horrek guztiak eragin handiko aldaketak ekarri ditu udalerrri horietara, aldaketa linguistikoak sortuz ezinbestean. Proposamen modura udalerrri euskaldunetako hizkuntza-ohituren babeserako neurriak hartzea iradokitzen du egileak, eta interbentzio negatiboak kontrolatuz positiboak gauzatzeko neurriak hartzea.

**Unai Fernandez de Betoño** irakasleak “Paisaia-politika ezarri berriaren aukeraz” artikuluan, lehendik ere ezagutzera eman dituen

kontzeptuak ekarri ditu artikulu honetara: paisaiaren kontzeptuarekin adierazi nahi duena ez da soilik natura babestearen ideia; aldiz, ondare kulturala ere paisaiaren zati garrantzitsua dela aldarrikatu nahi du, eta, beraz, ondare kulturalaz hitz egiterakoan ezinbestean hizkuntza-ondareaz ere hitz egin behar dela. Ikuspegi ekologikoarekin bat eginez egileak dioen moduan, “Euskal Herriko paisaia babesteko, antolatze eta kudeatzeko, euskararen berezko altxor kulturala ezin da gehiago alboratu, baita paisaia- eta ingurumen-politikak koordinatu behar dituen lurralde-antolakuntzari dagokionean ere”.

Hurrengo hiru artikuluak Gipuzkoako Foru Aldundiak eginiko ekimenen berri ematen dute. Lehenak, 2013-2017 epealdirako Aldundiak ezarri duen euskara erabiltzeko planaren ebaluazioa aurkezten du, eta bigarrenak eremu geografiko zehatzetan aplikatu daitezkeen Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren (ELE) azalpena. Bi artikuluok Aldundiko Euskara Zuzendaria izan den **Zigor Etxeburuak** sinatzen ditu, lehena **Mertxe Mujikarekin** eta bigarrena **Maren Belastegirekin** batera. Hirugarren artikuluak, bere aldetik, Eragin Linguistikoa Ebaluazioaren aplikazio praktikoa baten berri ematen du.

Artikuluotan beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez eginiko lanak aurkezten dira. Oharra egin nahi genuke hemen, zenbaki hau argitaratzeko lanetan ari ginen bitartean burutu diren Foru Hauteskundeen ondorioz Aldundi horren gobernuak aldatu egin dela, eta baita euskararen normalizazioaren plangintzaz arduratzen den zuzendaritza ere. Beraz, artikuluok ez dituzte egungo Aldundiaren gobernuaren iritzia islatzen halaberrez. Nolanahi ere, egindako lanaren interesak bere horretan jarraitzen duela iritzi dio Argitalpen Batzordeak, eta, beraz, prestatu bezala ematen dizkiegu irakurleari.

Aipaturiko artikuluetatik lehenak “Gipuzkoako Foru Aldundiaren hizkuntza politikaren ebaluazio soziala: eragileen parte hartze kritikoa sustatu eta eskubideak bermatzeko eredu” izenburuarekin, abian jarritako euskara erabiltzeko planaren inguruko ebaluazioa egiten du, bi esparru kontuan hartuta: Aldundiaren barneko ebaluazioak, eta gizarte-eragileen eta herritarren iritzietan oinarritutako ebaluazioa. Ebaluazioa aholkularitza-entresa baten eta Aldundiaren bertako teknikarien artean burutu da. Artikulu honetan, egindako ebaluazio sozialaren ondorio orokorrak azaltzearekin batera, etorkizunari begirako hainbat lan-ildo ere proposatu dira.

Aldundiak prestaturiko bigarrenean, zalan-tzarik gabe, interes berezia pizten duen gaiaren inguruko aurkezpena eta azalpena eman dute Zigor Etxeburuak eta Maren Belastegik, “Eragin linguistikoaren ebaluazioa” izenburupeko artikuluan. Proiektu honen helburua “(Eragin linguistikoaren ebaluazioa - ELE) eremu jakin bateko (auzo, herri, hiri, eskualde) proiektu eta jarduera pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditza-keten balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea, ebaluatzea da, eta euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eraginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzea”. Artikuluan ELE-ren ebaluazio prozedura aurkeztu da, urratsez urrats, eta ebaluazioaren ondorioen arabera hartu beharreko neurrien jarraipena egiteko hainbat irizpide ere eskaini dira.

“Tolosaldeko Lurraldearen Zatiko Planaren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa. Kasu praktiko bat” **Arritxu Zelaiak** eta **Goizane Aranak** idatziriko artikulua du irakurleak. Aurrekoan aurkezturiko Eragin linguistikoaren ebaluaziorako (ELE) tresna Tolosaldeko Lurraldearen Zatiko Planean aplikatu zen 2014ko maiatzean, lehen kasu praktiko mo-

dura. Esperientzia horren irakaspenak eta atera daitezkeen ondorioak aurkezten dira artikulu honetan, batez ere azpimarratuz, esperientziak emaitza positiboak eman dituela, frogatu delako baliagarria dela eta diziplina anitzeko adituak elkarlanean jarri dituelako hizkuntzaren prebentzioaren gaia aztertzeko. Bide berri baterako lehen urratsa izan dela azpimarratu nahi izan dute egileek, nahiz eta jakin bide luzearen hasiera den. Bide hori egitea interesgarri den erabakigai izango da, ziurrenik ere, datozen urteetako Aldundiaren egitekoen artean.

BAT Soziolinguistika Aldizkariaren zenbaki honi amaiera emateko **MUNDUKO SOZIO-LINGUISTIKAREN LEIHOA** atal berria zabaldu dugu. Bere izenak dioen modura, gure asmoa zenbaki bakoitzean nazioarteko ikuspegiaren alderdi bati lekua ematea izango da. Hori, jakina, kolaboratzaile-sare sendo bati esker egiteko borondatea dugu. Hasiera emateko Londresetik datorkigu lehen artikulua. “Nola ikusten dute euskararen biziberritzea atzerrian? Hizkuntza gutxituekin diharduen unibertsitate baten kasua: SOAS unibertsitateko HRELP egitasmoa” ikerketa burutu du **Beñat Garaio** irakasleak aurtengo urtean. Lana honako premisa honetatik abiatu da: Euskararen biziberritze-prozesua, beste hizkuntza askoren kasuan bezala gorabeheratsua izan eta izango da, baina, egoera berean daudenen elkarlana azpimarratu behar da. Horregatik, elkarren arteko harremanak egindakoaren neurri bateko ebaluazioa ere ekar dezake, eta hori da lan honetan planteatu den gaia. Londreseko SOAS unibertsitatean hizkuntza gutxituekin lanean dabilen HRELP izeneko egitasmoko kideen artean euskararen eta haren biziberritze-prozesuaren inguruan egindako galderekin osatu du egileak artikuluan aurkezten den ikerketa. Irakurlearen interesekoa izango delakoan ematen dugu argitara, gainerakoekin guzti-guztiekin batera. •